

BIZKAIKO LOREAK

Jolasean irribarrez eta doinu ezberdin gozoen liluraz hurbildu zaigu bertsolaritza ikastola eta eskola-atarira. Beti ere euskararen eskutik, noski! Euskara du muina, arnasa, tresna eta dena.

Euskara hitzetik hortzera, etorritsu eta jori darionari ez zaio bertsoa arrotz. Euskara nagusi den giroan hitzezko jolas bitxi hau loratzea ez da batere harritzekoa. Ingurumari ezin hobe horretan, han eta hemen ia konturatu gabe, ezarian-ezarian, bertsotarako ezpal oneko eta molde hobeko gaztetxoak agertu ohi dira. Hainbat irakasleak eman dezakegu gaur egun horren lekukotasuna, hasi-masiak eta lehen pausutxoak eman erazten dihardugunok bertsoa poliki-poliki loratzen ikusten bait dugu gure txikien luma nahiz ezpainetan. Loratze hori, udaberria bezain eder eta gozagarri zaigu, hasiera guriaren zantzu itxaropentsua bait dakar berekin.

Jolas antzeko ariketak

Eskolako langintza, berez, nahiko latz eta gozagaitz egiten zaio ikasleari. Horregatik ezinbestekoa da garratzaren ondoan gozotik ere pixka bat eskaintzea. Jolas eta ariketa atsegingarriak tartekatzea. Asaskalditxo pollit eta jostagarritz eguneroko zeregin berdintsu eta nekagarriak gozatzea, arintzea. Bertsolaritza horrelaxe hurbildu da haurrengana: gauza gustagarri antzera, jolas gisa.

Zertan datza bertsoaren erakarpena hain arrakastatsu onar-

tua izan dadin? Horren zioetarikoa bat musikan datzala esango nuke. Horretan oso aberatsa da bertso-mundua, herri-musikan oinarritzen denez gero; era guztitako doinuz aurkeztu ohi zaigu: alaiak edo erritmo saltaridunak, gozoak edo erritmo motelagoz kantatzekoak, finak edo sentiberatasuna adierazten dutenak (hauei tristura pitin bat dario, aintzinasun edo eta gregoria-no kutsua). Zortziko txiki eta handian batez ere doinuen saila luze-luzea da. Beste horrenbeste esan dezakegu koplei buruz ere. Hauek, euren egitura txiki eta errazagatik haurren gogo-gogokoak dira. Lehen pausutxoak ematen hasteko ere egoki-egokiak. Epe laburrera, ia-ia hasierarik jartzen dira kopla txiki nahiz handiak idatziz moldatzera. Kantatzeko, berriz, ezin aproposagoak izan ohi dira: eskuarki bi puntu eta apaingarri gisa edo aldrako lagunek koplariari erantzuteko errepikatzen den zatia eranstean zaio-larik.



Bertso idazketa

Bertso idazketak ere jolas edo denbora pasako ariketaren tankera hartzen du: azken puntua ardatz gisa hartuz, hari darion ideia aurretik atzera osotuz eta burutuz joatea, lehenen pentsaturiko azken puntuarekin aurreko guztia josi arte. Hori da erre-gela; hori da maisu guztien metodoa, baina haurrei kostatzen zaie horretara moldatzea. Gehienetan, azken puntua lehen-lehenik asmatu eta bertsoaren zutabertzat ezarri beharrean, bertsoaren abiaburuan jartzen dute eta gero gerokoak. Puntuak idazteko presak eta amaitzen lanak...

Oinak asmatzea ere txikiak oso gogotsu burutu ohi duten zera da. Oin horiek gramatika-kategorien arabera sailkatzeak gramatika bera lantzeko egokiera polita eskaintzen digu. Oin horietaz baliatzen ikastea da hurrengo urratsa. Hor dator osotze-lana; ariketak era honetakoak izan daitezke: lehen lerroa emanik, oinez bukatzen den lerroa asmatu nahiz alderantziz. Haurren trebetasunaren arabera, osotu behar dena errazagoa nahiz zailagoa izan daiteke. Sarritan honela jokatu ohi da: bertsoaren mezua daraman azken puntua jarri, eta haurrek, puntu honekin ideiaz eta moldez lotura izango duten aurreko puntuak asmatu behar.

Hitz andana luzea emanik, errima berekoak sailkatu (deklazio-bukaerak, aditz-bukaerak, atzizkiak, lexemak...).

Bertsoen alde umoretsua nahiz hunkigarria

Besteak beste, bertso eta koplari alde iragarri edo umoretsua ere onargarri da haurrentzat. Horretarako, Fernando Amezketa-aren pasadizu eta bertsoak, Pello Errotak eta Txirritak, Xenpelar eta Muxarrok elkarri egindako zirikadak ezin hobeto etortzen dira; baita «Bizkaiko txerriarenak», Bilintxen «Potajarenak», «Domingo Kanpaina» eta «Zaldi zuriarenak», Udarregiren «Kontsejura etorri naiz» eta «Bart arratsian» ere sail honetako bertso iragarrien artekoak dira. Honelakoak txikien gogokoenak direla esango nuke. Bidean bertsolariaren ironia-giro horretaz jabetzeko eta bertsolari zaharrak ezagutzeko abagunea eskaintzen zaie.

Sentimendu handiko bertso fin hunkigarriak ere badute



gure txikiengan erakarpenik, sakonegiak edo ulergaitzak ez badira behintzat.

Jai eta egun bereziak

Egun berezietan, eskola giroan, bertsoak goi-maila eskuratzen du. Hala nola: Gabonetan, ihauterietan, Santa Ageda besperan, lehen Jau-nartzetan eta abar. Urtegune-tan irakasle nahiz ikaskideak zoriontzeko ere bertso eta koplek euren tokia izan ohi dute. Gure ikastolan behin-tzat, ohitura hori, zeharo na-gusiturik dago. Nire ardura-peko taldeari dagokionez, 4. mailan hasten gara urtegune-tan ikasleak bertso-kantari zoriontzen. Maila honetan, irakasleak jarritakoak nork bere koadernoan idatzi eta omendua-ri kantatzeaz aski izan ohi dute. 5. mailan, ordea, urliak edo san-diak hartzen du bere gain, edo eta taldetxo batek, ikaskide guz-tien izenean, laguna omentzea. Lehenen arbelean idatzi ohi da, nork bere koadernoan berriidatziz eta guztien artean kantatuz. Ia beti doinu ezberdinez baliatzen gara honelakoetan, alde hori lantzea ere onuragarria bait da.



Noiz behinka, haien barnearen kilikagarri, txapelketa txiki antzekoak moldatzea ere ona izan ohi da. Bizkaian urtero anto-latzen da eskolarteko txapelketa. Lehenik, ikastola nahiz eskole-tako hautatuak eskualdeko lehiaketara joan ohi dira, adinaren arabera, idatzizko froga desberdinak jartzen zaizkielarik. Talde txiki batek, (horretarako gaitasuna dutenek) bat-bateko saiotxoa ere egon ohi du. Eskualdeetako onenak, frogak zuzendu eta puntuazioa eman ondoren, Bizkaiko idatzizko finalera joaten



dira eta koordinatzailearen critziz, eskola nahiz ikastoleta-ko laguntzaileei ere entzun ondoren, bat-bateko finalera-koak hautatzen dira. Orain dela bi urte, 32 gaztetxok jo-
katu zuten Bizkaiko bat-bateko finala Durangon. Egia esan, 12 urte inguruko neska-
mutillak ere tarteko izan ohi dira hor eta, bat-batekotasun hori ez da hain bat-batekoa izaten... Gaia eman ondoren edo eta oinak eman ondoren, nork bere buruan egosten du eta prestatu ahala, mikrofono-
ra irten eta kantatu. Txapelke-
ta abiatzen denetik azkenera arte egindako guztia (idatzi na-
hiz kantatutakoa) «BIZKAI-

KO LOREAK» izeneko liburutxo txukunean jasotzen da urtez urte.

Txapelketaz gainera, zerbait treba daitezenean, jendeaurre-ko saiotxo batzu molda daitezke. Eta norbere eskola barruan ere saiotxo batzu, jaialdi antzera ematea zaletasun horren zuzperga-
rri gerta daiteke. Guzti hauek, bertsolaritzaren lilura pizten dute. Xehetasun xume batzu baino ez dira, baina zertzelada txiki ho-
riek egin ohi dute edozein ekintza atsegingarri nahiz gozagaitz.

Lege zahar eta berriko bertso-eskolak

Argi ikus genezakeenez, gauza guztietan bezala bertsolari-
tzan ere giroa asko aldatu da. Bertso-eskolak dira berrikuntzarik nabariena. Lehenago ere bazen bertso-eskolarik, baina ez gaur egun bezain antolatu eta taiuturik. Egia esan, batere antolatu ga-
beak ziren kasu gehienetan, lehengo eskola haiek: ingurune ba-
tetako zenbait bertsolari bikainek, euren ohitura finkoak zituz-

ten horko edo hango sagardotegi nahiz tabernan bildu eta bertsoan aritzeko. Hori jakinik, bertsoaren xarmak ukiturik zeudenak hara joan ohi ziren entzule. Horra hor lege zarreko bertso-eskolak. Horrela, berez-berez sortzen zen maisu eta ikasleen arteko harremana. Metodo honen alde onak bistakoak dira: berezkoa, naturala, jatorra izatea du bere aldeko; baina tokiz oso mugatua izatea kontrako, bertsolari maisuei entzuteko aukerarik ez bait zen edonon. Hernani, Errenderi, Oiartzun, Asteasu, Zizurkil eta inguru horretan bizi zirenak bapo, baina beste guztiak jai...



Muxikako eskolak oraingo eskolen antz handiagoa zuela ematen du. «ALMEN»goa har genezake eskola-molde berriaren aitzindaritzat. Geroztik Euskal Herrian, Bizkaian eta Gipuzkoan behinik behin, ikastetxe gutxi izango dira euren bertsolari-mintegitxoa ez dutenik. Nork uste izan zezakeen garai batetan, zigor-eraztunak jarri eta kalean ere «hable usted en cristiano» eta abar txitean pitean entzun behar izaten zirenean, zer eta bertsoa..., eskoletan etxekotzat hartua izango zenik?

Lege berriko bertso-eskola hauen emaitzak ukaezinak dira. Muxikako eskolak, inguru hori, Bizkaiko joriena bihurtu zuen Berriaturekin batera. «ALMEN»en kasua hortxe dugu hurbil-hurbil. Eta oraingo abiada politaren lekukotasuna guk geuk ere eman dezakegu, egunero ikusten dugunagatik.

Jolasa, bertsoaren xarma, lilura etab. aipatu ditugu arestian; baina eskolako antolaketaren barnean txertatuz gero, jatortasun eta freskura pittin bat galdu behar. Guztia bete-betea eta irabazia, onura txerriak bakarrik omen du... Hala baina kaxkagor azaltzen direnek, eskola berri hauetan sinesten ez dutenek jakin bezate haurren artean hazia ereiten den guztian, fruitua ere jasotzen dela!

Bizkaian eskolarik eskola gaztetxoak eta arduradunak trebatzen ari den Jon Lopategik zera esaten zidan oraintsu: etorkizuna oso itxaropentsu ikusten zuela bertsolaritza lantzen ari diren gaztetxoek aldetik. Euskarak norantz jotzen duen, hor da goela gakoa. Bertsolaritzak bere plaza, bere ingurua du eta hori euskaldungoarena da. Euskaldungoaren indartzeak ekarriko luke bertsolaritzak bere plaza, lekua berreskuratu eta hedatzea. Egia esan, Xenpelarrek zioena gaur egun ez da gertatzen. «Debalde festa preparatzen det / gogoa dedan orduan» jaulki zion Iparragirrerri. Bertsolari-saioak ia beti txapelketa, jaialdi edo ikuskizunetara mugatuak daudela konturatzen gara. Bertsolariak bere plaza hartzeko euskaldungo ahula eta giro arrotza izatea litzateke tristeena.

Geure altxorraren bila

Bertso-teknika (puntuak, oinak, errima, neurria...) edo eta bertsolaritza soil-soilik bere muga hertsian ematea gozagaitz gerta daiteke. Geure altxorraren bila abiatu beharra dugu. Gure kultura herritarraren alde ezberdinak eskaintzean, xarma handiko eta eskuragarri den zerbait eskaintzen diogu haurrari: mitologia (sorginak, basajaunak, laminak...), ipuinak, pasadizuak, txistak, pipitakiak, esaera zaharrak, hitz-jokoak, aho-korapiloak, kopla zaharrak, herri-kantak, bertso zaharrak eta aintzinako bertsolarien bizitza. Guzti horrekin horniturik, apaindurik mo-

kadu gozoa izan daiteke bertsolaritza. Gizartean moda ezberdi-
nak boladaka gailendu arren, gure ahozko tradizio zahar hauek
beti izango dute erantzun ziurra haurren aldetik.

Ikastetxez ikastetxe bertso eta kopla kantari

Bertso kantari egin ohi ditugun txagoak aipatu nahi nituz-
ke azkenez. Bat-batean aritzeko gai direnentzat abagune ezin
hobea da eskolaz-eskola saiotxoak ematea. Trebakuntzarako eta
pitinka-pitinka plazara egiteko egoki-egoki datorrena. Lehenago
santa-eskean eman ohi zituzten askok lehen urratsak; orain, es-
kolaz eskola ibiltzea dute aukerarik politenetarikoa. Txikia-
goekin ari garenok, polikiago ibili behar: saio osoa ongi taiutu-
rik eta buruz ikasirik eraman ohi dute. Baina bat-
batekotasunaren jatortasuna falta izan arren, haurrak berez du-
ten grazia edo alaitasuna emanik, saio bete-beteak eta
aberatsak irteten dira.

Idazlantxo hau amaitu orduko, bakoitzari berea aitortu be-
har zaionez gero, zuzpertz eta ekintza guzti ardatz eta zutabe,
guk ere geure ahalegintxoak egin arren, Jon Lopategi dugula
esan behar.

Luis Baraiazarra